

www.transeduca.com
info@transeduca.com
Tel. 93 474 00 02



ZAZPI ANTUXUMEAK

ZAZPI ANT XUMEAK

1. Agerraldia

Eszenan bi ehule ikusten ditugu. Agerraldia isilean hasten da, zazpi eredu bukatzen dituzten bitartean (aulki batzuen zorroak). Bukatzen dituztelarik euren artean begiratzen dira “bai polita” esango balute bezala. Eredu bakoitza kolore batekoa da. Bukatzen dituztenean banan banan, publikoari begira, zorro bakoitzaren kolorea esaten dute.

1. EHULEA. Urdina

2. EHULEA. Berdea

1. EHULEA. Lila

2. EHULEA. Horia

1. EHULEA. Laranja

2. EHULEA. Gorria

1. EHULEA. Koloretakoa

Ehuleak kolore guztiak zerrendatu ostean, bata besteari begira geratzen dira, hasperen eginez. Ez dakite zer egin.

2. EHULEA. Eta zer egingo dugu orain?

1. EHULEA. Utzi pentsatzen. (Ereduak kontatzen ditu). Bat, bi, hiru...

2. EHULEA. (Zenbatzen laguntzen dio). Lau, bost, sei eta zazpi.

1. eta 2. EHULEAK. (Publikoari begira). Zazpi.

Zazpi eredu horiekin zer egin dezaketen pentsatzen hasten dira. Zer izan daitezke? Zazpi... Zer? Ehundutako ereduak objektu bizidunetan bihurtzeko jokoa hasten da. Jokoa hasten delarik, bietako batek saskiak eta bestelako trasteak bilatuko ditu (gero antxumeen hankatxoak eta burua izango dena, beste gauzen artean).

1. EHULEA. Zazpi ipotx?

2. EHULEA. Ez!

1. EHULEA. Zazpi katu? (Katuarena egiten du, aulkitxo batekin jolasten). Miau, miau...

2. EHULEA. Ez. (Berak frogatzen du). Zazpi etxe?

1. EHULEA. Ez! Zazpi printzesa?

2. EHULEA. Ez! Zazpi errege?

1. EHULEA. Ez! (Eraiki berri duen antxume baten burua ateratzen duelarik). Zazpi antxume?

2. EHULEA. Bai! Ideia bikaina. Zazpi antxumeen ipuina kontatu dezakegu!

1. EHULEA. Orduan, goazen! Lagundu.

Gainontzeko buruak aurretik muntaturik zeuden, aulkiak muntatzen bukatzean, zazpi antxumeak eszenan usten dituzte, eta berriro ere zenbatzen dituzte (publikoarekin batera).

1. ETA 2. EHULEAK. Antxume 1, 2 antxume, 3 antxume, 4 antxume, 5 antxume, 6 antxume eta 7 antxume.

1. EHULEA. (Ipuina kontatzen hasten da). Bazen behin, bere zazpi antxumeekin bizi zen, ahuntzama bat.

2. EHULEA. Pssst, pssst, pssst! (1. Ehuleari, arduratuta). Non dago ama?

1. EHULEA. Ze ama?

2. EHULEA. Antxumeen ama. Zuk “Bazen behin, bere zazpi antxumeekin bizi zen, ahuntzama bat.” esan duzu... Beraz... Non dago ahuntzama?

Elementu bat falta zaiela konturatzen dira, publikoari begiratzen diote, eta disimulatuz, urduri, irribarre egiten dute.

1. EHULEA. (2. Ehulearen belarrira, baina argi entzuten dugu). Ez daukagu ahuntzamarik.

2. EHULEA. (Urduri). Zer?

1. EHULEA. Ez daukagula ahuntzamarik.

2. EHULEA. (Publikoari begira, disimulatuz irribarre egiten du). Eta orain zer egingo dugu?

1. EHULEA. (Ideia bat du). Bat sortu ezazu.

2. EHULEA. Bat sortzea, ideia bikaina. Goazen! (Hortik dauden mantala eta txano bana hartzen ditu).

1. EHULEA. Nolakoa izan beharko litzateke munduko amarik onena?

2. Ehuleak 1. Ehuleari mantala jartzen dio.

1. EHULEA. Ni? (Ez zaio ideia txarra iruditzen). Béééé. (Barre egiten dute).

Biak batera 1. Ehulea ahuntzamaz janzten doaz, elementu berri bat jartzen dioten bakoitzean adjektibo bat gehitzen dute.

2. EHULEA. Munduko amarik onena gozoa izan behar da.

1. EHULEA. (Gozotasuna antzezten du, eta adjektiboak gehitzen ditu, hauek antzezten dituelarik; bitartean abestiaren sarrera musikala hasten da). Munduko amarik onena polita izan behar da.

2. EHULEA. Munduko amarik onena, bere hurrekin dago ahal duen bakoitzean.

1. EHULEA. Munduko amarik onena, bere hurrekin jolasten du ahal duen bakoitzean.

2. EHULEA. Munduko amarik onenak ahotz gozoa dauka eta oso ondo abesten du.

Abesten hasten dira.

Amaren abestia

Asko maitatzen dut nire ama.
Asko maite dut nire ama gozoa.
Asko maitatzen dut nire ama,
Munduko onena da.

Beti nirekin,
behar dudanean.
Beti irribarrez
triste nagonean.
Maitagarri...
eta samurra.
Ondo pasatzen dugu
eta barreragiten dit.

1. EHULEA. (Abestia amaitzen da eta barre egiten du, elementu batzuk kentzen ditu ahuntzama izatetik narratzailera pasatzen delako). Zoragarri, ia-ia badaukagu. Orain bakarrik otsoa falta zaigu.

2. EHULEA. Itxaron, otsoa? Nik ez dut ipuin onetan otso bat egoterik nahi.

1. EHULEA. Bina ipuin honetan otso bat dago! Ia-ia ipuin guztietan otso bat dago!

2. EHULEA. Baina niri ez zaizkit otsoak gustatzen. Ipuinetako otsoak maltzurak dira. (Pixka bat lotsatuta aitortzen du). Niri ipuinetako otsoek beldurra ematen didate.

1. EHULEA. (Barre egiten du). Beldurra?

2. EHULEA. Bai.

1. EHULEA. (Konbentzitzen saiatzen da). Ez izan beldurrik. Ipuinetako otsoak ez dira benetakoak, fantasiazkoak baizik. Horregatik, norbaitek ipuin bat kontatzen digunean, ez dugu beldurrik izan behar otsoa agertzean. (Publikoari). Ezetz? (Erantzuna espero du, guztientzako azalpena bai da). Ikusten? Gainera... Otso hau ez da oso beldurgarria izango, zu izango zarelako.

2. EHULEA. Ni?

1. EHULEA. Bai.

2. EHULEA. (Ezezko biribila). A ez!

2. Ehulea kexatzen den bitartean, 1. Ehuleak jantzi egiten du, kasurik egin barik.

2. EHULEA. Ezta pentsatu ere! Ez naiz otso basati bat izango, ez, ez eta ez!

Aktorea otsoz jantzita dago. 1. Ehuleak ispilu bat ematen dio eta 2. Ehuleak bere burua mozorroturik ikuztean iritziz aldatzen du.

2. EHULEA. Otso basati bat, ni?

1. Ehuleak buruarekin baietz esaten du eta 2. Ehuleak ulu egiten du.

1. EHULEA. (2. Ehuleari). Ale, prestatu zaitez, ipuina kontatzera goazela.

2. Ehulea ezkutatu egiten da eta 1. Ehulea ipuina kontatzen hasten da agertokiko elementuak mugituz, antxumeen etxetxo eraikitzen duelarik.

2. Agerraldia

1. EHULEA. Bazen behin, etxetxo bat basoaren erdian. Bertan, zazpi antxume txiki bizi ziren. Bere amarekin batera oso pozik bizi ziren koloretako antxumeak, beraien artean asko jolasten zutelako. Baina baso horretan baita ere, otso bat bizi zen, eta gertu gertutik zelatatzen zituen. (Otsoarena egiten duen aktorea agertzen da eta leihotik edo atetik antxumeak zelatatzen ikusten dugu, gosea duela agerian utziz eta korrika alde egiten du. 1. Ehulea istorioa kontatzen jarraitzen duen bitartean ahuntzamaz janzten da).

1. EHULEA. Horregatik ahuntzama oso kezkatuta zegoen eta etxetik irten behar zuen bakoitzean bere antxumeei oso jarraibide zehatzak ematen zizkien.

Otsoarena egiten duen aktoreak jantzia erantzi du eta txotxongiloak mugituko ditu ahuntzamarekin batera.

AHUNTZAMA. Erosketak egitera irten behar dut orain. Kanpoan nagoen bitartean, kontuz ibili otsoarekin.

ANTXUMEAK. (Off-ean). Bai, ama. Béééé.

AHUNTZAMA. Zer egin behar duzue?

ANTXUME TXIKIA. Kontuz ibili behar gara eta ezin diogu inori atea zabaldu.

AHUNTZAMA. Eta zer gehiago? Lila? (Antxumeak bere koloreengatik deitzen ditu).

LILA. Ez dakit.

AHUNTZAMA. Zer egingo duzue atea jotzen badute? Urdin?

URDIN. (Zalantzati). Zu zarela ziurtatu eta zure abestia kantatzea eskatu.

AHUNTZAMA. (Arduratuta, argi ez daukatela ikustean). Eta nola da abestia? Hori?

HORI. (Lotsatuta). Ez dut gogoratzen.

AHUNTZAMA. (Arduratuta hasperen egiten du). Norbaitek gogoratzen du?

ANTXUME TXIKIA. Nik ama! (2. abestiaren errepika abesten du).

Zabaldutea.
Tok, tok, tok, tok.
Zuen amana.
Tok, tok, tok, tok.

AHUNTZAMA. Oso ondo Ortzadar!

AHUNTZAMA. Eta zer gehiago? (Eztarria seinatu egiten du eta bere ahotsa argitzen du pistak emanez). Laranja?

LARANJA. Ahotsa... (Ez du gogoratzen, Antxume txikiak belarrira esaten dio). Argia eta gozoa! Ahotsa argia eta gozoa izan behar da.

AHUNTZAMA. Oso ondo. Eta zer gehiago? (Hankatxoa erakutsiz). Gorri?

GORRI. Hankatxoa, hankatxoa... (Antxume txikiak berriro ere belarrira esaten dio). Zuria izan behar da. Norbaitek atea jotzen badu, hankatxoa erakutsi behar digu eta zuria ez bada, ez dugu zabaldutea.

AHUNTZAMA. Hori da arkumetxoak. (Arduratuta jarraitzen du). Guztiz argi izan dezazuen, berriro birpasatuko dugu, ados?

ANTXUME GUZTIAK. Baaaai...

AHUNTZAMA. Goazen ba!

Tok, Tok, Tok

Zabaldutea.
Tok, tok, tok, tok.
Zuen amana.
Tok, tok, tok, tok.
Zabaldutea.
Tok, tok, tok, tok.
Zuen amana.
Tok, tok, tok, tok.

Ama ez bada etxean,
itxi ezazue atea
Etxe barruan batera
Ezin zarete atera.
Norbaitek jotzen badu,
entzun bere ahotsa,
argia ez ba da
ez zabaldutea.
Norbaitek jotzen badu,
hankatxoa erakustea.
Zuria ez bada,
ez zabaldutea.

Zabaldu atea.
Tok, tok, tok, tok.
Zuen ama naiz.
Tok, tok, tok, tok.
Zabaldu atea.
Tok, tok, tok, tok.
Zuen ama naiz.

Abestia bukatzean, Ahuntzama bere alabak agurtzen ditu.

AHUNTZAMA. Oso ondo, ni orain joan beharra dut. Gogoratu azaldu dizuedana. Eta garrantzitsuena: Ez zabaldu atea inori niri izan ezik.

ANTXUMEAK. (Koro bezala). Ados ama.

ORTZADAR. Joan zaitez lasai amatxo.

Ahuntzamak musu bat ematen die eta lanera doa. 2. Ehulea eszenan geratzen da, ipuin kontalariarena eginez eta txotxongiloak mugituz.

2. EHULEA. Ikusten den bezala antxumeei beraien amaren jarraibideak gogoratzea kostatzen zaie. Ez dute arreta jartzen eta beti beste gauzetan daukate burua.

2. EHULEA. Bere amatxoak hitz egiten duenean, Berdek, mendi berdeetan jolastean pentsatzen du (antxumea jolasten).

1. EHULEA. Bere amatxoak hitz egiten duenean, Urdinek, zeru urdinarekin ametsetan ematen du denbora (antxumea amets egiten).

2. EHULEA. Bere amatxoak hitz egiten duenean, Gorrik, bihotz gorriak margotzen ematen du denbora (antxumea maiteminduta).

1. EHULEA. Bere amatxoak hitz egiten duenean, Horik, eguzki horia begiratzen ematen du denbora.

2. EHULEA. Bere amatxoak hitz egiten duenean, Lilak, lila koloreko loreak jasotzen ematen du denbora.

1. EHULEA. Bere amatxoak hitz egiten duenean, Laranjak, bere pilota laranjarekin jolasten ematen du denbora (Laranja jolasten).

2. Ehulea eszenatik alde egiten du eta otsoz jantzita agertzeko prestatu egiten da.

1. EHULEA. Zorionez, Ortzadarrek, bere amatxoak esaten duen guztia adi-adi entzuten du, eta badaki otso basatiarekin kontuz ibili behar direla. Otso basatiak, zazpi antxumeak aspaldi zelatatzen ditu, jan egin nahi dituelako...

1. Ehuleak hau azaltzen duen bitartean, 2. Ehulea otsoz jantzita sartzen da, eta antxumeak zelatatzen ikusten dugu.

ORTZADAR. Gure amatxoa entzun duzue, oso garrantzitsua da atea inori ez zabaltzea.

ANTXUMEAK. Baaaai.

Momentu horretan otsoak atea jotzen du. Sei antxumeak korrika atea irekitzera doaz, baina antxume txikiak geldiarazten ditu, atea begiratzeko du eta mesfidantzaz galdetu egiten du:

ORTZADAR. Nor da?

OTSOA. (Ahots zakar-zakarrarekin). Zuen ama.

ORTZADAR. (Bere ahizpei). Orain esan beharrekoa gogoratzen al duzue?

LARANJA. Pasahitza?

ORTZADAR. Oso ondo!

URDIN. Ama bazara esaguzu pasahitza.

OTSOA. (Aztoratuta atearen bestaldean). Pasahitza?

ANTXUMEAK. (Batera). Baaai.

OTSOA. (Saiatzen du). Pasahitza... Bi eta bi lau?

ANTXUMEAK. Ez !

OTSOA. (Berrirori saiatsen du). Ireki antxume politak?

ANTXUMEAK. Ez!

OTSOA. (Etsita, ia-ia negarrez eta gosez amorraturik). Zuen amatxoa naiz, ireki ezazue behingoz!

ORTZADAR. Ez, ez eta ez! Zu ez zara gure amatxoa, zu otso basatia zara. Ospa hemendik, otso maltzurra. Ez dizugu atea zabalduko!

OTSOA. Pasahitza? Antxumeen etxean sartzeko hitz batzuk behar ditut? Nola jakingo ditut nik?

Antxumeak eta Antxumeen etxeko barnealdea baztertzen dituzte eta agertokiko aurrealdean otsoa, bere zorigaitzaz kexaka geratzen da. Ahuntzama helduean, otsoak agertokiko albo batean ezkutatuta zelatatzea erabakitzen du.

AHUNTZAMA. (Atea jo eta abestu egiten du). Zabaltu atea. Tok, tok, tok, tok. Zuen ama naiz. Tok, tok, tok, tok.

OTSOA. (Errepikatzen saiatsen da). Zabaltu ahatea, kuak, kuak, kuak... Ez, ez, ez... Ez zen horrela...

Otsoarena egiten duen aktoreak eszenan jantzia erantzten du eta publikoari azaltzen dio:

2. EHULEA. Otsoak oso memoria txarra zuen eta oso ikasle txarra zen, horregatik abestia ikastea asko kostatu zitzaion, baina egun bat bestearren atzean, antxumeak zelatatzen ibili ondoren, azkenik... Abestia ikasi zuen.

Abestiak jarraitzen du, Ahuntzamak errepika abesten doa 2. Ehuleak berriz ere otsoaren jantzia jartzen duen bitartean eta eszena barruan geratzen da zelatan.

Bigarren errepika otsoa eta ahuntzama batera abesten dute, otsoak bikain ikasi duela ikus dezakegu eta jarrera garaile bat erakusten du. Abestia bukatzean ahuntzama atea ireki eta etxera sartzen da. Otsoa eszenan bakarrik geratzen da publikoari begira jarrera garaile bat erakutsiz.

OTSOA. Bai! Lortu dut!

1. Ehulea eszenan sartzen ikusten dugu eta presa barik, antxumeen etxeko barnealdea muntatzen du berriro.

1. EHULEA. (Publikoari, muntatzen duen bitartean). Honela, otsoak ahuntzamaren abestia ikasi zuen. Eta egun batean, antxumeak beraien etxean lasai-lasai amaren zain zeudela...

OTSOA. (Eskuarekin atea jotzen duen bitartean ahoarekin egiten du soinua). Tok, tok, tok.

SEI ANTZUMEAK. (Koraa bezala aurreratzen dira). Nor da? Nor da?

OTSOA. (Ondo abestuz baina ahots zakarrarekin). Zabaldut atea. Tok, tok, tok, tok. Zuen ama naiz. Tok, tok, tok, tok.

ANTZUMEAK. Amatxo da, amatxo da.

URDIN. Hau ahots zakarra daukana gaur amak.

ORTZADAR. Ez da ama, amak ahots argia eta gozoa dauka. Otsoa da! Engainatu egin nahi gaituela!! Ez da ama!

URDIN. Zu ez zara gure amatxoa. Gure amak ahots argia eta gozoa dauka. Ospa hemendik otso maltzurra! Ez dizugu atea zabalduko.

ORTZADAR. (Antxumeak eszenatik alde egiten duten bitartean). Ondo esana Urdin. Otso maltzur honek ez gaitu engainatuko.

Otsoa joan beharrean Antxumeak eta etxeko atea alde egiten dute, berriro ere Otsoa bakarrik dago eszenan, bere ahotsa argitzeko zer egin dezakeen pentsatuz. Otsoa agertokiaren alde batetik bestera ibiltzen ikusten dugu, pentsatzen.

OTSOA. Ahots argi eta gozoa, ahots argi eta gozoa behar dut (eztarria garbitzen du eta saiakera batzuk egiten ditu, ahotsa zorrotza jarritz, opera erara, oihukatuz, publikoarekin bere porrotak baieztatzen dituelarik, hauek ezetz esatea esperoz)... Zer hartu dezaket nire ahotsa lehuntzeko? Gozokiak? (Poltsikotik bat ateratzen du eta irensten du, frogatzen du eta balio ez duela konturatzen da). Ez da nahikoa. (Berriro pentsatzen du). Eztia? (Poltsikotik ontzi bat atera eta eztia irentsi egiten du, berriz ere frogatzen du eta ez du balio). Ez da nahikoa. (Berriro ere saiatzen du). Limoi zukua? (Nazka aurpegia ipintzen du...). Ez, hobe ezetz, ez dut limoi zukua gustuko. Orduan, zer hartu dezaket nire ahotsa lehuntzeko? (Publikoari begira, beraien erantzuna espero du, hauek erantzutekotan hori jasoko du, bestela bera bakarrik helduko da erantzun egokira). Hori da! Arrautza! Arrautzaren zuringoa behar dut, baina... Nondik aterako dut nik arrautzaren bat?

Momentu horretan 1. Ehulea eszenatik pasatzen da txistu eginez, besapean otzara bat daramala.

OTSOA. (Jakin-minez). Kaixo... Zer daramazu otzaran?

1. EHULEA. Nik? (Disimuluz). Ezer ez...

Otsoak otzara barnean begiratzen du.

OTSOA. Nola, ezer ez? Honek arrautzak dira. Otzara honetan arrautzak dituzu... (Gero eta urduriago). Mesedez, baten bat salduko didazu?

1. EHULEA. Ez, sentitzen dut, ez daude salgai.

OTSOA. (Erregutuz). Mesedez...

1. EHULEA. Ezin zaitut lagundu, ez dizkiot ipuineko otso maltzurari arrauts hauek salduko, sentitzen dut...

OTSOA. Baina nik ARRAUTZAK be-har di-tut!!!

1. EHULEA. Ez.

OTSOA. (1. Ehulea engainatuz). Begira, elefante bat hegaz egiten!!

1. EHULEA. (Oharkabe). Non?

Otsoak oharkabea otzara kentzen dio eta korrika alde egiten du.

1. EHULEA. Otso, otso, etorri hona, arrauts horiek nireak dira. (Amore emanez, publikoari). Sentitzen dut, lagunak.

1. Ehuleak antxumeen etxea muntatzen du. Atea jartzen du eta antxumeak honen atzean. Eszena prest dagoenean Otsoa atearen bestaldean kokatzen da. Publikoaren aurrean arrautsa ireki eta edaten du. Bere ahotsarekin froga pare bat egiten ditu guztiz argia dela baieztatu arte. Garaile, barre egiten du, atea jotzen du eta sei antxumeak batera irekitzera doaz.

ANTXUMEAK. Amatxo da, amatxo da...

ORTZADAR. Neskak! Pasahitza eskatu behar dugu.

ANTXUMEAK. Pasahitza, pasahitza. Amatxo bazara, abestu ezazu pasahitza.

OTSOA. Zabaldutzea. Tok, tok, tok, tok. Zuen ama naiz. Tok, tok, tok, tok..

LILA. Bai ahots argi eta gozoa, dudarik gabe ama da...

ORTZADAR. Ahizpak! Hankatxoa...

URDIN. Hankatxoa, hankatxoa. Ama bazara, erakutsi ezazu zure hankatxoa ate azpitik.

OTSOA. (Ahots gozoarekin). Ondo da, hankatxoa...

Otsoak hankatxoa erakusten du, eta antxumeak beldurrez atzera egiten dute.

GORRI. Zu ez zara amatxo! Gure amak hankatxo zuria dauka, zure hankatxoa beltza da. Ez gaituzu engainatuko otso maltzurra! Ospa hemendik!

Berriro 1. Ehuleak antxumeen etxea eszenatik ateratzen du eta berriro ere otsoa bakarrik ikusten dugu, etsita...

OTSOA. Hankatxoa! Lehenengo abestia, gero nire ahotsa... Eta orain hankatxoa. Arrrrgh... Nola lortuko dut nik hankatxo zuri bat? Ondo pentsatu behar dut, antxume hauek oso argiak dira...

Zuri-beltza

Beltza, otso iluna,
beltza, gaua bezala.
Beltza, otso iluna,
beltza, kafea bezala.
Beltza, baina zuri izan nahi,
beltza, baina zuri izan nahi.
Beltza, otso iluna,
elurra bezain zuri izan nahi.
Beltza, gaua bezala,
zuri-zuria izan nahi dut.
Antxumeak engainatzeko,
amarru bat prestatu behar dut.
Antxumeak engainatzeko,
amarru bat prestatu behar dut.
Imajina! Zuri, zuri.
Zerk zurituko nau ni?
Auskalo, ba al dakizu zuk?
Badaukat!
Irina behar dut.

OTSOA. Hori da behar dudana, hankatxoa irinaz estali behar dut...

Otsoak abestia kantatu ahala, 1. Ehuleak eszenako atzealdea irina-errota batean bihurtu du.

OTSOA. Baina... Nondik aterako dut nik irina? (Publikoari galdezka, erantzuten badute haria jarraitzen die, bestela bere kabuz errota aurkituko du). Errota bat! Hori da! Errota batean irina dago, eta irina zuria da. Apur bat jarriko dut hemendik, beste pittin bat hortik, eta... hori da. (Barre egiten du, hanka zuriaren elementua jartzen duen bitartean). Jajaja, badaukat. Nire hankatxoa guztiz zuria da orain.

Otsoak aldaketa egin ahala, 1. Ehuleak antxumeen etxetxoa muntatu du eta antxumeak bere lekuan kokatu ditu. Errota, gero Antxume txikiak ezkutatzeko erabiliko duen erlojuan bilakatuko da.

Otsoa antxumeen etxera heltzen da eta ahots zakarrarekin jotzen du atea.

OTSOA. Tok, tok, tok.

1. EHULEA. (Ahots zakarragatik harritua). Hau ahots zakarra!

OTSOA. (1. Ehulea begiratzten du eta akatsaz ohartzen da). Ahotsa... Ahots argi eta gozoa ahaztu dut! (Poltsikotik arrauts bat atera eta edan egiten du). Orain bai, dena bikain!

1. EHULEA. Badirudi oraingoan otsoak guztia ondo prestatuta daukala...

Otsoak berriro ere atea jotzen du, oraingoan ahots gozo eta argiarekin.

OTSOA. Tok, tok, tok...

ANTXUMEAK. (Batera). Nor da? Nor da?

OTSOA. Zabaldututa atea. Tok, tok, tok, tok. Zuen ama naiz. Tok, tok, tok, tok..

ANTXUMEAK. Amatxo da, amatxo da...

ORTZADAR. Ahizpak, ez ahaztu hankatxoa.

LILA. Arrazoia daukazu. (Otsoari). Erakutsi ezazu hankatxoa ate azpitik!

Otsoak hankatxoa erakusten die.

GORRI. Hankatxoa zuri-zuria da, zalantzarik gabe, gure ama da, atea zabaldutuko dut.

Gorri atea irekitzean Otsoa Antxumeak arrapatzeko prest ikusten dugu, hauek guztiz beldurturik daudelarik. Momentu horretan 1. Ehuleak eszena geldituko du eta bai antxumeak eta bai otsoa geldirik geratuko dira.

1. EHULEA. Ikusten duzuen bezala, azkenean otsoak antxumeak engainatzea lortu zuen. Zorionez Ortzadar, antxumerik gazteena, azkar-azkar erlojuan ezkutatzeko lortu zuen, otsoaren atzaparretatik ihes egitea lortuz. Bere ahizpek ordea, ez zuten horren zori onik izan...

Eszenak berriro ere bizia hartzen du eta Otsoak Antxumeak banan banan arrapatuko ditu eta zaku batean sartuko ditu. Azkenik otsoa zakuarekin alde egingo du eta eszenan erlojua besterik ez da geratuko... Orratzen soinua entzungo dugu ahuntzama agertu arte.

AHUNTZAMA. Zabaldututa atea. Tok, tok, tok, tok. Zuen ama naiz. Tok, tok, tok, tok.

Ortzadar erlojutik burua aterako du guztiz beldurtuta eta berriro ezkutatu da, beldurtuta eta negarrez. Azkenean berriz ere aterako du burua.

ORTZADAR. Amatxo zu zara? Hankatxoa atearen azpitik erakutsiko didazu?

AHUNTZAMA. (Bere hankatxoa ez tiki erakusten du, bere alaba lasaitzen duen bitartean). Hankatxoa (irribarrez). Noski Ortzadar, oso ondo!

Ortzadar negar-zotinka dago.

AHUNTZAMA. Ortzadar, negarrez ari zara? Zer gertatu da? Ireki atea Ortzadar...

Azkenik antxumeak atea irekitzen du. Ahuntzamak begiradarekin bere gainontzeko alabak bilatzen ditu.

AHUNTZAMA. Eta zure ahizpak? Non daude?

ORTZADAR. (Beldurturik, bere amaren magalean bilatzen du babesa). O ama, oso beldurgarria izan da. Otso maltzurak engainatu gaitu eta guztiak bahitu ditu...

AHUNTZAMA. Otsoak? O, ez... Zu hemen geratu zaitez, nik otso maltzur hori bilatuko dut. Ortzadar ez zaitez hemendik mugitu, eta ez zabaldu atea inori!

ORTZADAR. Ados amatxo.

Ahuntzama korrika ateratzen da, Ortzadar berriro erlojuan ezkututzen delarik. Etxeko atea eta erlojua kentzen dute eta bi ehuleak agertzen dira.

1. EHULEA. Eta ipuina ezagutzen baduzue, ondoren gertatutakoa imajinatuko duzue...

2. EHULEA. (Otsoz janzten den bitartean). Otsoak sei antxumeak jan zituen. Hainbeste jan ostean bere sabela asko handitu zen... (Sabel handi bat jartzen du, barruan antxumeak egongo dira).

1. EHULEA. Otsoa hain beteta zegoenez, ibaiaren ertzean lo geratu zen. (Hau esaten duen bitartean, otsoak oihal urdin handi bat jarriko du lurrian, ibaiaren plantak eginez). Eta gozo-gozo lo egiten zegoela, ahuntzama isiltasun osoz urbildu zitzaion.

1. Ehuleak isiltasuna eskatuko dio publikoari eta ahuntzamaz jantziko da, gero isil-isilik otsoa eta bere alabak bilatzen dituelarik. Besapean otzara bat, artaziak eta orratza eramango ditu.

1. EHULEA. Hemen dago! (Berriz ere isiltasuna eskatuko du). Otso maltzur eta jatun honek, eskarmentu ederra merezi du. (Otzaratik artazi handi batzuk aterako ditu eta otsoaren sabela zabalduko du).

ANTXUMEAK. Bééé. Ama da, ama da.

Ahuntzamak keinu batez isiltzea esaten die eta banan banan ateratzen ditu beraien izenak esanez.

AHUNTZAMA. Hori, Gorri, Urdin, Laranja, Lila, Berde... (Otzara barruan besarkatu egiten ditu). Guztiak ondo zaudete (irribarrez)... Eta orain otso maltzur honek, eskarmentu ederra merezi du. Zer egin dezaket? (Publikoak esatea itxaroten du. Bestela berak hartuko du erabakia). Hori da! Sabelean harriak sartuko dizkiot! (Agertokiari begirada bat bota ostean ibaiko harriak hartu eta kontu handiz otsoaren sabelean sartzen ditu). Orain kontu handiz josiko dut...

Ahuntzamak josten bukatzen du eta eszenatik alde egiten du isil-isilik. Segundo batzuk geroago otsoa pixkanaka esnatzen dela ikus dezakegu. Esnatzean bere sabela eskuartean hartzen du.

OTSOA. Bai astuna sentitzen naizela... Antxume gehiegi jan ditut. Tripako min handia daukat... Ai, ai, ai...

Otsoa bigarren planoan negarrez geratzen da eta 1. Ehulea ipuinaren amaiera kontatzera etortzen da.

1. EHULEA. Otsoa, ibaiaren ertzerara gerturatu zen ura edateko. Hain zen bere sabela pisutsua, ibaiaren hondoraino eramane zuela, eta bertan ito zen. (Hau kontatzen duen bitartean oihal urdinak otsoaren gorputz osoa estaliko du).

Otsoa argiztatzen duen argia desagertzen da pixkanaka otsoarena egiten duen aktoreari eszenatik alde egiteko aukera emanaz.

1. EHULEA. (Antxumeen etxetxoa muntatzen duen bitartean eta ahuntzamaren jantzia lanpararen gainean jartzen duelarik). Ahuntzama bere antxumeekin etxera onik bueltatu zen. Guztiak beraie ahizpa Ortzadarrekin elkartu ziren berriro ere (erloju atzetik pixkanaka-pixkanaka ateratzen ikusiko dugu). Eta urte asko bizi izan ziren bakean eta pozik.

Antxumeen etxea, ahuntzama eta zazpi antxumeekin batera argiztaturik ikusiko dugu. Momentu horretan 2. Ehulea eszenan guztiz aserretuta sartzen ikusiko dugu.

2. EHULEA. Momentu bat, momentu bat! Niri ez zait amaiera hau gustatzen. Bizitza horrelakoa da, otsoek antxumeak jaten dituzte, elikatu behar dira! Oso gaizki iruditzen zait otso gaizoarekin horren krudelak izatea.

1. EHULEA. Baina beno... Orain zer gertatzen zaizu? Ipuin klasikoetan honela izan da beti. Ipuin klasikoetan, maltzurrek beti lezio bat jasotzen dute. Eta badakizu zer? Nik amaiera onak maite ditut. Niri ipuinetan onak irabaztea gustatzen zait.

Ehuleak desadostasunez begiratzen dute elkar.

1. EHULEA. (2. Ehuleari, bakegile). Ez zaitez aserretu. Ipuin polita kontatu dugu.

Amaiera

Eta honelaxe bukatzen da...
Guk amaiera onak maite ditugu...
Eta honelaxe bukatzen da...
Guk amaiera onak maite ditugu... Bai!!!